


ERREGISTRO ZIBILA? HURBILA!!!

Gobernuak bake epaitegiak pribatizatu nahi ditu eta edozein espediente egiteko hiriburuetara joan beharko da



Por un registro civil cercano
PRIBATIZAZIORIK EZ!!!



<http://justizia.lab.eus>

JUSTIZIAKO LANGILEAK MOBILIZATZEN DIRA

Egun justizia arloa esparru mobilizatua da eta hori horrela bada ez da sindikatu handiei esker, haiek gorabehera baizik. Izan ere, administrazio honetako eta beste batzuetako milaka langilek gobernu espainiarrak eta CCOO, UGT eta CSI-F erakunde sindikalek sinaturiko hitzarmena errekurritu dute, ezkutuan ERE (enplegu-erregulazioko espedientea) prestatzen dabiltzala aurpegiratzen dietelako, EPera (enplegu publikorako eskaintza) atera nahi dituzten lanpostuak direla-eta. Estatuko lurralde guztietan badira eta izango dira mobilizazioak.

Egonkortasuna eskatzen du kolektibo horrek eta Europak arrazoia eman die lege-iruzurreko kontratuak aipatzen dituelarik. LAB 3 urtetik goragokoak diren kontratuak ari da errekurritzen, oraingoz; errefortzuak dira adibide argiena, horiek baitira lege-iruzur gisa egin direnetakoak, Europako Batasunaren arabera. Lan-kontratupeko langile guztiek demanda

irabazten dute; funtzionarioekin, aldiz, ez dago hain argi langile **mugagabe ez finkoa** figura ez delako bateragarria funtzionariotzarekin, eta horixe da, hain zuzen, auzitegietan arrazoia eman dieten lan-kontratupeko langileei egiten zaien kontratu mota.

Orain ari dira aztertzen antzeko figura bat langile funtzionarioentzat; aldi berean, argitu gabeko hainbat galdera ez du erantzun Europako Batasunak; eta laster erabaki baturen bat hartu beharko dute auzitegi espainiarrek.

Hori gertatzen den bitartean, bitarteko langileak saiatzen ari dira erdiesten akordioaren bat honako hau gogoan dutela: haiek gainditzeko aukera izango duten oposizio-lehiaketa, ezkutuko ERE bihurtuko ez dena. Egia da betiko lehiaketa arrunt batek ahalbideetuko liokeela estatuari egundoko dirutza aurrezte, langile berriei ez lieketelako ordainduko antzinatasunagatiko ordaingaririk. LABek aldeztu du iruzurrezko kontratua duten langile hauek egonkortzea.

Bestalde, erregistro zibilaren auzia dugu. Aspaldi hasi ginen LABen esaten pribatizazioa geldituta zegoela baina bere adierazpiderik baldarrenean; izatez, aldikako eta zatikako pribatizazioa da erregistro zibilarena, pixkanaka eta zeharka ari dena osatzen (lehendabizi, nazionalitateak; orain ezkontzak; gero herrietako eta hirietako bulegoak desagertuko dira...). Horiek horrela, *vacatio legis* (lege baten indarra geroratzea) berri bat edo 20/2011 Legearen beste premiazko aldaketa bat adostu ezean, ekainean gaur egun dauden Erregistro Zibileko bulegoetako gehien-gehienak itxiko dituzte, seguruenera eta gehienez jota hiriburuetakoak besterik ez baitlira geratuko.

Vacatio legis batzuk izan diren arren, ez da lortu zerbitzu publiko hau bermatuta egotea ez dagoelako borondaterik. Azken buruan nahi dutena da pribatizatu eta kanporatu. Ez bada oraindik gertatu arrazoi teknikoengatik da, ez daukatelako prestatu beharrezkoa den euskarri informatikoa.

Ez dakigu **PPk** zer nolako tratua duen sindikatuekin. **PSO**eren posizioa bai argia! Espainiako Parlamentuan egindako agerraldia besterik ez dago: 20/2011 Legea, Erregistro Zibilaren ingurukoa, dagoen bezala indarrean sartzea 2018ko ekainean. **Ciudadanos**, ordea, besteek etxea txukun diezaioten zain dago, ea administrazio publikoa “argaltzen” dioten haiek boterera heldu aurretik. **Podemos**, aldiz, aurreko hiruek nahi dutenaren aurka dago eta, parlamentuak agintzen dituen denboraldiak direla-eta, seguruenera eztabaidara iritsiko ez den lege-proposamen bat aldeztu du.

Podemosen esandako proposamen hori, ñabardurak ñabardura, bat dator LABek hasieratik eskatzen duenarekin. Beste alderdi batzuek ere, **EH-Bildu** haietako bat da, haien agerraldian Espainiako Parlamentuan honako hauek eskatu zituzten: erregistro zibila zerbitzu publikoa izan dadila; galdutako eskumenak itzularaztea; eta zerbitzua Justizia Administrazioako langilez hornituta egotea. Aldi berean, EH-Bilduk, LABek ere egiten duen moduan, salatu zuen 20/2011 Legeari begira nahi zuten sakoneko aldaketa bakarra zela ondokoa kentzea: autonomia erkidegoak izatea ahalmena erregistro zibileko arduraduna aukeratzeko.

Hastepenetik jakin genuen oso garrantzitsua zela, bai Eusko Legebiltzarra bai Eusko Jaurlaritza, partedun egitea zerbitzu publiko honen defentsan. Horregatik ezinbestekoa da aldeztzea 20/2011 Legeak ematen duen aukera: autonomia erkidegoetako A1 taldeko funtzionario bat izatea erregistro zibileko arduraduna; areago zerbitzua desjudizializatuta. Gaur, hilak 16, estatuko erregistro zibiletako langileek mobilizazioa prestatu dute Madrilen; LABen elkartasuna bidaltzen diegu.

Pil-pilean dagoen beste kontu bat dugu Galiziako Justizia Administrazioako lankide grebalariak. Benetan egiten dituzten zereginekin bat datorren ordainsariaren alde borrokatu ez ezik, erregistro zibilaren defentsan ere badabilta. Badakite-eta horixe dela Planta judizialaren Legea aldatzearen ondorioz sufritu behar ditugun erasoetan aurreneko urratsa. Azken batez, erregistro zibilerako nahi duten eredu bera baita: hiriburuetan erregistro bakarra eta Auzialdiko Auzitegi probintzialak, gaur egun dauden barruti judizialak desagertuta.

Amaitzeko, abian dauden borroka batzuk dauzkagu eta enplegu egonkortasunaren alde borrokan ari diren bitarteko langileen mugimenduak estatu osoko administrazio guztietara hedatzeko aukera handiak ditu. Izatez, egunotan ari dira egiten hainbat hiritan manifestazio eta aldarrikapen batzuk. Datozen egunetan jakingo dugu zer ari diren negoziatzen estatuko sindikatuak eta gobernu espainiarra. Izan ere, ikusteko dago bitarteko langileen enplegua egonkortzeko akordiorik lortuko duten; ea erregistro zibila zerbitzu publiko gisa mantentzen duten, aurreko eskumenak itzularazita; edo, bestela, mobilizazioak izango ote diren beharrezko tresna hilabetez helburuak erdietsi arte.

2018/03/16

